

Jesusek bezala begiratu eta jokatu

17. saioa

Hamaseigarren gaiaren haritik, Jesusen proposamena aurkeztuko dugu orain. Nolako pertsonak izan behar dugun azaltzen digu Berak, gizatasun gehiago izan dezagun eta osotasunez bizi gaitzen. Jesusek errealitateari eta gure antzekoei errukizko begiez begiratzen irakasten digu, geure buruarentzat ez ezik besteentzat bizitzeko eskatzeaz gainera.

SAIOAREN HELBURUAK

Helduak:

- Jesusek bizitzarako proposatzen dizkigun balioak –gizaki guztien duintasuna, zuzentasunaren aldeko borroka, elkartasuna...- onartu
- Balioren bat familia bizitzan garatu
- Jesusek bizitzarako egiten digun proposamena zorientasunerako dela antzeman

Haurrak:

- “Egintza ona” gauzatu ahulenen, gehien behar gaituenen... alde
- Jesus, maite gaituen Adiskidea dela aitortu

GARAPENA

HELDUAK

“Jesusi buruzko” ideiak emateko eskatuko du eragileak. Lehenik eta behin, Jesusen izaeraren ezaugarri bereizgarriak eskatuko dira. Zatar-paper handian edo arbelean, bi zutabe ipini eta partaideek esaten dituztenak idatziz jasoko ditugu. Hori begi-bistan dugula, “Jesusek bezala begiratu eta jokatu” testua banatuko diegu, taldean irakurri eta komentatzeko.

Hasierako hausnarketaren ostean, partaideak hiruzpalau laguneko taldeetan banatuko dira, guztiek parte hartzeko aukera izan dezaten. “Jesusek bezala begiratu eta jokatu” idazkian jasotzen diren Idazteuneko txatalak (batzuk behintzat) banatuko ditugu. Txatal horien bitartez ikusiko dugu nola begiratzen eta jarduten zuen Jesusek eta haiekin batera agertzen diren galderez baliu gaitzeko ariketa egitean. Bibliako txatalak irakurri eta elkarrizketan jardun ondoren, papereko edo arbeleko bigarren zutabean idatziko ditugu Jesusen nortasunaren ezaugarri behinenak. Denon artean, Jesusen “erradiografia”, bere izateko eraren “argazkia” osatuko dugu.

Lantzen dihardugun hori geure egiteko, barneratzeko, “Dime cómo ser pan” abestia entzungo dugu ondorengo estekan:

<https://www.youtube.com/watch?v=rQQrt4G9Zb8>

Abestia entzunda, familian nola “izango diren ogi” hausnartuko dute bikoteka, Jesusek familia bizitzarako egiten dituen proposamenetako bat edo beste zehazteko. Eragileak ikusiko du bikoteka hitz egindako hori batera jartzea komeni den ala ez.

HAURRAK

Taldean erabaki, haurrentzat eskaintzen diren jardueretatik zein edo zeintzuk egin, beti ere partaideen kopurua eta adina kontuan hartuta. Batzuk etxean edo familian ere egin daitezke.

1. Adiskidetasunaren betaurrekoak

Begiratzeko eta ikusteko hainbat era dagoela kontura daitezen, kartulinazko betaurrekoak (saiorako materialen karpetan dago eredu) egingo ditugu. Kristalak koloretako zelofan-paperaz egingo ditugu... Horrela, gauzak gorri, berde, beltz... ikusiko ditugu.

Jesusek bezala begiratu nahi dugu geuk ere eta, horretarako, ikasteko, ondorengo kontakizuna entzungo dugu, Jesusen argibideetan arreta jarritz.

Joanen kontakizuna da, hain zuzen ere, ‘rezandovoy.org’ delakotik hartuta: adiskidetasunaren otoitza.

Jesus ikasleekin zegoen azken afarian. Afalostean, beraiekin hizketan hasi zen. Oso serio zegoen. Irakaspenik garrantzitsuena emateko zorian zela zirudien. Orduan esan zien: «Hau da nire agindua: maita dezazuela elkar nik maite izan zaituztedan bezala. Ez die inork maitasun handiagorik adiskideei, bere burua haien alde ematen duenak baino. Zuek nire adiskide izango zarete, nik agintzen dizuedana egiten baduzue».

«Gauzak obligazioz, diruagatik, beldurrez egiten badituzu, orduan morroi zara. Baina niretzat ez zarete morroi, nire adiskideak baizik. Nik egiten dudana egiten baduzue, nire antzera jokatzan baduzue edo nire antzera bizi bazarete, nireganako adiskidetasunagatik izan dadila. Neuk aukeratu zintuztedan. Aitak jakinarazitako guztia adierazi dizuet. Eta eginkizun hau eman dizuet: edonon fruitu ugaria eta iraunkorra eman dezazuela».

Juan 15, 12-18.

Komentatu hurrekin testua, ia zer diotsen... Hausnartu zein betaurreko jartzen dugun: adiskidetasunarenak... bihotzaren betaurrekoak, kristalik gabekoak... bihotzarekin begiratzeko... zer ikusten dugu...

Haurrek azal dezatela zuen laguntzarekin nola izango diren inguruko adiskide... Zer egingo duten bihotzaren betaurrekoak jarri eta adi egoteko, inguruan gertatzen denaz jabetzeko...

Haurrekin hitz egiteaz batera, kristalik gabeko betaurrekoak jarriko ditugu, Jesusek bezala, bihotzarekin begiratzeko.

2. Margotu

Zatar-paper handi bat lurrian ipini eta Jesus jarriko dugu hizki handiz, ondoren denon artean margotzeko. Kolore desberdinetako kartulina-tirak banatuko ditugu haurren artean, eragilearen laguntzarekin beren izena idatz dezaten eta gure adiskidea den Jesusenaren ondoan ipini.

Amaitzeko, J.L. Achoteguiaren abestia ikasiko dugu: "Desde el día en que dijiste dejad que los niños se acerquen a mí..."

AMAIERA DENOK BATERA

Zergatik dituzten betaurrekoak ipinita eta betaurreko horiek zergatik ez duten kristalik azalduko diete haurrek nagusiei. Eta nagusiek, otoitza elkarrekin egitea proposatuko diete, horrela Jesusek bezala begiratzen ikasteko. Lerroz lerro irakurri, haurrek errepika dezaten. Bestela, haurrek bigarren zatia esan dezatela: "... Jesusek bezala begiratzen dugu"

Jesusek bezala begiratu...

Denen adiskide garenetan...

... Jesusek bezala begiratzen dugu

Behar gaituztenei laguntzen diegunean...

... Jesusek bezala begiratzen dugu

Daukaguna banatzen dugunean...

... Jesusek bezala begiratzen dugu

Triste daudenen ondoan gaudenean...

... Jesusek bezala begiratzen dugu

Maitekorrek garenean...

... Jesusek bezala begiratzen dugu

Sufritzen ari direnengan arreta jartzen dugunean...

... Jesusek bezala begiratzen dugu

Izadia zaintzen dugunean...

... Jesusek bezala begiratzen dugu

... dugunean

... Jesusek bezala begiratzen dugu